

PLaza



lazko maskaraden emanaldia, Maulen, otsailaren 3an. Maule-Lextarrek eman zituen iaz maskaradak. GAIKAIROZ

Maskaradekin, hirugarren zubia

Atharratze-Sorholüze eta Aloze-Ziboze-Onizegaineko bizizaleek paratu dituzte aurtengo maskaradak

ALLANDE SOKARROS
Atharratze / Aloze

Bi zubik elkarrri lotzen dituzte Uñaitzandia erreka nagusiaren bi aldeetan alboz albo kokatuak dauden Atharratze-Sorholüze eta Aloze-Ziboze-Onizegaineko udalerriak. Bi udalerritan bildutako bost herri hauek, baina, hirugarren zubi bat izango dute hemen-dik aurrera, Zuberoan zehar ibili-

Guztira 30 bat gazte ariko dira Atharratze eta Alozeko maskaradetan, gorrietan zein beltzerian

Herrien gonbitari erantzunda, 15 jeltkaldi egingo dituzte aurtengo maskaradek

ko diren aurtengo maskaradak elkarrekin paratu baitituzte. Atharratze-Sorholüzek eta inguruko herri batzuek maskaradak agertu zituzten azkenik 2000. urtean. Aozek, bere aldetik, 1970eko hamarkadan azken aldian eman zituen.


Guztira 30 bat gazte ariko dira maskarada hauetako gorrietan zein beltzerian. Kargu handienak jokatu dituztenak aipatzearren, Ddiddue Arhantzet atharratzarra izango da Kabana handia eta sortzez Gamere-Zihigakoa den Mathieu Tauzin, aldiz, buhame jauna. Bi pertsonaia hauek dituzte jendaurrean perediküak aldarrikatzen, egia esan zuberotarrek soilik ulertzeko modukoak direnak. Pitxu beltzeriako broma egile nagusia jokatu duenak izen ezaguna darama, Onizegainean bizi den Niko Etxart kantariaren seme Txomin Etxarti tokatu baitzaio kargu hau.

NIKO ETXART AZKEN KANTORE EGILE. Alabaina, Niko Etxartek berak ere esku-hartzerik izango du maskarada hauetan, arratsaldeko agerrialdia-

■ Maskaraden jeltkaldiak

Atharratze-Sorholüze eta Aloze-Ziboze-Onizegaineko maskaraden jeltkaldiak

	Urtarrila
Atharratze-Sorholüze	13
Gotaine-Irabarne	20
Ligi-Atherei	27
	Otsaila
Altzurükü	3
Ürrüstoi-Larrabile	10
Muskildi	17
	Martxoa
Gamere-Zihiga	2
Maule-Lextarre	8
Arrokiaga	16
Barkoxe	23
Aloze-Ziboze-Onizegaine	30
	Apirila
Altzai/Lakarri	6
Sohüta-Hoki	13
Urdinabe	20
Santa Grazi	27



Intzagarai. Maule-Lextarrek iaz eman zituen maskaradetan xorrotzak bi neska izatea gutxitan gertatu bada, neska-mutil bikotea egotea ia inoiz izan denik ez da entzuterik baina.

Xorrotzak hizpide ditugula beti ere, hauen bertso eta abestien doinuak Vincent Godemenen belarri finaren emaitza badira, hitzak, berriz, Domino Haztoiren eskutik datozkigu. Azken honek ditu, halaber, kantariak eskolatu, dantzarien trebatze lanetan jardun duelarik, aldiz, Joimo Arhantzetek. Xorrotzak aipatzean ere, Jauna ezin saihestu, kargu honetan dotore ariko delarik Jean-Philippe Pribat. Anderea, haatik, ez du aldi oro berdina izango... Maylis Errezaret eta Maddi Bidalun aldizkatuko baitira kargu horretan.

ZUBEROAN ZEHAR, 15 JELTKALDI. Maskaradazaleek aukera nahikoa izango dute Zuberoako ihauteria bereziaren agerraldirik ikusteko aurtén. Izan ere, herrien gonbitari erantzunda, 15 jeltkaldi egingo dituzte Atharratze eta Alozeko maskaradek, zehazki, bederatzi Pettarrean edo Arbailletan eta sei Basabürian. Ateraldi hauek hasiko dituzte urtarriaren 13an eta amaituko apirilaren 27an.

Lehendabiziko jeltkaldiak ohiturari eutsiko dio, zeren eta maskaraden egile den herrietatik batean —Atharratze-Sorholüzen— gertatuko baita, etzi zortzi, urtarriaren 13an. Azken agerraldia, baina, ohizkanpooka izango da, ez baita Aloze-Ziboze-Onizegainen egingo, bai ordea Santa Grazin. Honek ez du garrantzi soberarik, zeren, aspaldi baita maskaraden beste ohitura bat ez dela betetzen, hau da, ihauteria garaian soilik egitea.

Betikoa da, aldiz, maskaraden jokaldi bat. Goizean, 10.00etatik hasita, Barrikada hausteak egiten dira. Maskaradei harrera egiten dieten herri bateko horrenbeste lekutan maskaradakariak dantzajauziak behar dituzte eman, oztopo hau gaunditzeko baimena lortzearen. Gaur egun, barrikada hauek dira edariak eta kauserak zein bestelako pastelak jarrita dauden mahain batzuk. Lehenago, ordea, benetako barrikadak egiten ziren eta honetatik dator izen honen esanahia.

Ordubete eta erdi, bi ordu inguru irauten duen maskaraden agerraldi nagusia bera, aldiz, arratsaldeko 15:30-16:00etatik harat egin ohi da, kanpoaldean eta herriko plazan. Maskaradak ondo ezagutzen ez dituzten askok ez dute hasieran ulertzen zergatik hutsik geratzen diren sarritan aitzinaldeko jarlekuak. Kauteren eta buhamen aldrebeskeriak ikusi eta gero ohar-tzen dira ordea zertarako...

ren amaieran ematen den azken kantorea berak baitu hitzez eta doinu bezititu. Jaunaren ezpata zorrozten eta maskaradetak ikus-

garri zatien artean bertsoak abesten dituzten xorrotzak berriz mutiko-neska bikote bat izango dira, hots Alozeko Aña Bidalun eta Xabi